



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-01-28ko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko urtarrilaren hogeita zortzian, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Begoña Garmendia Vazquez andrea, Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Igone Arruti Olazabal andrea eta Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du.: Inork ere ez.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA

AURREKO BILERAKO AKTA ONARTZEA.

2008ko abenduaren 29ko ezohiko saioaren akten zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hauek onartzea.

BIGARRENGO GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Azkeneko osoko bilkuraz geroztik ez da dekretu berririk izan.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARRENGO GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, ZABORRAREN ETA URAREN ZERGEN
ERREKARGUEN ITZULKETA EGITEA (LEHEN ETA BIGARREN
HIRUHILABETEA).

2008ko urriaren 3ko 56 erabakikuntzaren bidez, Udal honek 2008 urteko bi hiruhilabetekoei zegozkion zaborrari buruzko tasen errolda jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Data bereko 57 erabakikuntzaren bidez, berriz, Udal honek 2008 urteko bi hiruhilabetekoei zegozkion urari buruzko tasen errolda jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Ikusirik, tasen kobrantzari dagokion izapidetzeak aurrera egitean, Udal honen eskuetatik at dauden arrazoiak direla medio, hainbat akats sortu zirela, hauek erreziboak prestatu, jakinarazi eta bidaltzerakoan eragin zuzena izan zutelarik.

Kontuan hartuz, Beizamako herritar asko akats honengatik kaltetua izan zela, batez ere, zergen kobrantza epeak nahasmena sortzen zuelako, eta bestetik, banketxean ordaintzerakoan eragiketak egiteko ezintasuna agiri zelako.

Kontuan hartuz, besteen artean, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.e artikuluan araututakoa, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- 2008ko lehen eta bigarren hiruhilabetei dagozkien ur eta zaborraren



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

zergan jasotako errekarguak itzultzea ordaindu dituztenei.

Bigarrena.- Itzulpena, honetarako adierazten den kontu korrontean helbideratuz egingo du Udal honek.

Hirugarrena.- Itzulpena egin ahal izateko, errekargudun ordainagiria Udal honetan aurkeztu beharko da, martxoaren 28a baino lehen.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea Beizamako herritar guztiei.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 19:30etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.